

## **PERESTROIKA EKONOMIKOA.**

### **Hurbilpen bat Sobietar Batasunaren azken faseko erreformei, 1983-1992.**

Ikaslea: Iñaki Errazkin Vitoria  
Gradua: Historia  
Tutorea: Iban Zaldua Gonzalez  
Saila: Ekonomia Historia eta Ekonomia Erakundeak  
Ikasturtea: (2018-2019)

**Laburpena:** Lan honen helburua Sobietar Batasunaren azken urteetan perestroika bezala ezagutu zen erreforma saiakerari hurbilpen bat egitea da, bertako ekonomian izandako bilakaera eta aldaketen nondik norakoak bilduz. Erreformarekin, sobietar ekonomia erdua eraberritu nahi izan zen, plangintza ekonomia eta merkatu askearen konbinazio baten bitartez. Hurrengo orriotan, saiakera hark izan zituen mugarri nagusiak azalduko dira, azkenean kolapso egoerara iritsi izanaren arrazoiak ere aztertuz.

## **Aurkibidea:**

0- Sarrera.....	2
1- Sobietar ekonomiaren berezitasunak makro eta mikro mailetan.....	3
2- Krisian zegoen Sobietar Batasuneko ekonomia 1980. hamarkada hasieran?.....	6
3- Lehen aurrekariak. Brezhnev aldiaren amaiera eta Andropoven saiakerak.....	11
4- 1985. Gorbaxov, autokritika, alarma gorriak. <i>Uskorenie</i> estrategia.....	13
5- Perestroika ekonomikoaren bultzatzaileen helburuak.....	15
6- <i>Uskorenie</i> tik perestroikara. 1987-1988. Erreformen sakontzea, demokratizazioa eta merkatu sozialista.....	18
7- Lehen bost urteen balorazioa. 1985-1990.....	20
8- 1990. Eztabaida biziak eta erreforma erradikalagoak. Abalkin vs. Shatalin.....	21
9- 1991ko estatu kolpea eta erorialdia.....	25
10- Jeltsin eta Gaidar. “Xok terapia” erorialdiaren epilogo gisara.....	25
11- Ondorioak.....	27
12- Bibliografia.....	29

## 0- Sarrera

Sobietar Batasunaren, eta orokorrean bloke komunista deitu izan zenaren bat-bateko lur-jotzearekin amaitu zen perestroika garaia. Inor gutxik aurreikusi zuen orduan horrela amaituko zuenik II. Mundu Gerraren ondoren superpotentzia bihurtu zenak. Denbora gutxian, aldaketa ugari gertatu ziren, eta lan honetan horien nondik norakoak jorratu dira.

Lehen zatian 80ko hamarkadako sobietar ekonomiaren egoera aztertu da, egindako erreformen berri emanaz eta horiek izandako emaitzak erakutsiz. Horretarako, hamarkada hasierako egoera ekonomikoaren argazkia erakutsi aurretik, sobietar ekonomiaren berezitasun batzuk laburbiltzen dira, orduko egoera eta egindako erreformen arrazoiak ulertzeko lagungarri izan daitezkeelakoan. Jarraian, aurrekarietan geldialdia egin ondoren, 1985ean Gorbatxov Sobiet Batasuneko idazkari nagusi izendatu ondoren gertaturiko bilakaera aztertu da, modu kronologikoan, tartean perestroika ekonomikoaren helburuak aipatuz. Erreformek, bilakaera gorabeheratsua izan zuten, bukaeran gehienbat, eta egoera hori hainbat ataletan aztertu da, 1991ko abuztuan Sobietar Batasuna bat-batean erori aurreko hilabete zailak hobeto islatu asmoz.

Azken zatiaren helburua Batasuna erortzean hartutako norabidearen, eta izandako ondorioen laburpen txiki bat egitea izan da, epilogo gisara ulertuta, lan honen jomuga nagusia perestroika aldia izanagatik ere. Arrazoa honakoa da: perestroika garai guztian zehar (eta aurretik ere) zein eredu ekonomikora aldatu behar zen eztabaidatu zen, eta aditu askok merkatu askerako aldaketa azkar bat burutzea defendatu zuten. Jeltsinen (eta bere arduradun ekonomikoa zen Gaidar-en) eskutik etorri zen duda-mudarik gabeko aldaketa bortitz hori, “amildegian beherako jauzi” gisa izendatua izan zena, merkatu askea kolpera ezarriz. Jauzi horren emaitzak erakustea lagungarri izan daiteke perestroika garaian alderdi komunistako gobernariak aldaketa beste norabide batean egin nahi izatearen arrazoiak ulertzeko, ahaztu gabe beraien artean eztabaida biziak ere izan zituztela.

Garrantzi handia izan zuten beste auzi batzuk ez dira aipatu lanean, edo zeharka bakarrik. Nazio auziak bezalako gaiak ez dira jorratu, esaterako, lanaren helburua ekonomia alorrean izandako gako nagusiak aztertzea izan baita.

## 1- Sobietar ekonomiaren berezitasunak makro eta mikro mailetan

Atal honetan, “sozialismo erreala” deitua izan zenaren berezitasun batzuk nabarmenduko dira, mendebaldeko ekonomia kapitalistetatik desberdinak ziren ezaugarriak aukeratuz. Desberdintasun horiek ekonomia antolatzeko aukeratu zen ereduari lotuak daude ezinbestean, plangintza zentraleko ekonomiaren sortzaile izan baitzen Sobietar Batasuna.

Ekonomia mota horren funts nagusia *ex ante* eredia aukeratzean datza (Nove, 1987: 60), non ekonomiaren beharrak “aurretik” planifikatzen diren. Zer, nola, eta zenbat produzitu beharko litzatekeen ustearen arabera erabakiak hartuz. Ekonomia kapitalistetan aldiz *ex post* eredia praktikatzen da, merkatuak berak (eskaintza-eskari jokoaren arabera) norabidea ezarriz zer, nola eta zenbat galderari<sup>1</sup>. *Ex ante* ereduarekin, merkatuak berez sortzen dituen anabasa eta anarkia egoerak ekidin nahi ziren.

Aitzitik, ez zegoen idatzirik ez zehazturik zein izan behar zuen sozialismoaren politika ekonomikoa, ikuspegi marxista batetik (Nove 1987: 31), eta beraz Sobietar Batasunean eredu ekonomikoa aurrera egin ahala eraikitzen joan zen praktikan, gerra komunismoa, Politika Ekonomiko Berria 1920ko hamarkadan, eta azkenik plangintza zentraleko ekonomia martxan jarritz. Ekonomiaren plangintza estatuak hartu zuen bere gain, ia eremu guztietan, eta horretarako administrazio handi bat eratu zen, maila gorenetik enpresa mailaraino antolatuta zegoena, alderdi komunistako (eta estatu administrazioko, aldi berean) kide ziren planifikatzaileez osatua. Burokrazia indartsu bati abioa eman zitzaion horrela, milioika pertsona behar baitziren horretarako.

Estatuak planifikatu eta guztia kontrolatzeko helburuarekin, nazionalizazio prozesu masibo bat bideratu zen. Merkatu libre txiki eta kontrolatu bat existitzen bazen ere, eta erreforma batzuk gora-behera, eredu hori zen 1980ko hamarkadan mantentzen zena. Teorian “soldatapekorik” ez zegoen, jabetza sozialistarekin guztiak baitziren jabe, baina “estatu kapitalismo” eredia hartu zenez, han ere soldatapekoak bazeuden (Chavance 1987: 9-10). Estatuak ezartzen zituen soldatak, lan motaren arabera desberdin ordaintzen zirenak. Sozialismo klasikoaren “bakoitzari bere lanaren arabera” printzipioa aplikatzen zen, eta Stalinen garaian mailakatze nahiko altuak bazeuden ere,

---

<sup>1</sup> Alec Nove ekonomialariak sobietar ekonomia marxista klasikoek planteatutako eredu teorikoekin alderatu du, proposamen teorikoetatik praktika errealekora zeuden antzekotasun-desberdintasunak aztertuz. Kasu honetan, *ex ante* eredia Marx-ek bere *Kapitala* laneko II. liburukian proposatu zuen (1987: 60-67).

Brezhneven aldiko politika behe-mailako taulak igotzeko joeran oinarritu zen, “paktu Brezhneviarra” bezala ezagutua dena (3. atalean aztertuko da hori), non behe-mailakoen soldatak eta zerbitzuak hobetu ziren goi-mailakoenak izozturik mantendu ziren bitartean (Chavance 1987: 23).

“Iguaitarismo” sobietarraren oinarriak lehendik zetozen, iraultza aurreko gizartearen ezaugarrietako bat baitzen nekazarien artean. Baina horrek ez du esan nahi berdintasun egoera hori orokortua zenik. Soldatek 1tik 10rako desberdintasunak zituzten, eta horri bestelako zenbait pribilegio ere gehitzen zitzaizkien, alderdiko *nomenklatura*-ren esku jartzen zirenak; gainera, bigarren ekonomia<sup>2</sup> baten bitartez (merkatu ez formalak) ere handitzen ziren desberdintasunok.

Enpresek, industrian zein nekazaritzan, “Enpresa funtsak” erabiltzen zituzten, beren produkzioaren trukean diruaren zati bat horretara bideratuz. Funts horiekin, enplegatuentzat etxebizitzak, hezkuntza beharrak edo aisialdi zerbitzuak ordaintzen zituzten (Nove 1965: 28-29). Zerbitzu horietarako estatuak gastuaren 2/3 jartzen zuen, enpresek zuzenean beste herena jartzen zuten bitartean, enpresa eta enpleguaren artean soldata bat izatea baino lotura handiagoa ezartzen ziona, hainbat gizarte zerbitzu enpresek zuzenean kudeatzen baitzituzten. Funts horiek sobietarren kontsumoaren heren bat inguru osatzen zuten 1980ko hamarkada hasieran (Chavance 1987: 24-25).

Ekonomia planifikatuaren beste ezaugarri bat desoreka finantzarioa zen. Finantza eta kreditu sistema guztia estatuak bideratzen zuen, planaren arabera. Horrek, desoreka sortzen zuen diru zirkulazioaren eta benetako ondasun-bilakaeraren artean (Aganbegyan 1989: 45). Desoreka hori, defizita bihurtzean, estatuak hartzen zuen beregain, inflazio kroniko bat (ezkutukoa bazen ere) sortuz horrela.

Desoreka horren jatorria prezioen ezarpen motan zegoen<sup>3</sup>. Prezioak planifikazioaren baitan ezartzen ziren, eta planteatutako helburuak lortzeko moldatzen ziren (Aganbegyan 1989: 59-60). Bi prezio mota ezartzen ziren zirkulazio horretan, handizkako prezioak eta txikizkako prezioak<sup>4</sup>. Eredu hori mendebaldeko sistema

---

<sup>2</sup> Merkatu grisa eta merkatu beltza aipatzen dira horretarako, planek sortzen zituzten desorekak konpontzeko erabiltzen zena lehena, eta bigarrena merkatu ilegalean hainbat produktu (eskasian zeudenak) eskuratzeko. Ikus horretarako Chavance 1987: 117-121; edo Palazuelos 1990: 207-209.

<sup>3</sup> Sakontzeko ikus Nove 1987:149-158; Aganbegyan 1989: 59-60; Chavance 1987: 59-71.

<sup>4</sup> Chavance 1987: 62-63; Nove 1965: 123-136.

kapitalistetan ere aplikatzen zen; sobietar ekonomiaren kasuan prezio horiek kostuaren kalkuluan oinarritzen ziren, ordea, kalkulu teorikotik abiatuz ezartzen zena, ondoren zergetarako eta mozkinarentzako zatia gehituz.

Prezioak politika ekonomikoaren norabidea indartzeko erabiltzen ziren, beraz. Helburua industrializazioan hazkunde azkarra gauzatzea zen, hasieratik, ekonomia kapitalistak atzeman eta are gaintzeko nahian. Hazkunde eredu modu estentsiboan eman zen, metalurgia, energia edo kimika arloko sektore produktibo pisutsuak lehenetsiz (Palazuelos 1990: 22-23). Horrek kontsumo-ondasunen produkzioa zailtzen zuen, eta 1970eko hamarkadatik aurrera herritarren kontsumora bideratutako produktuak indartzeko politikak ezarri baziren ere, 1980ko hamarkada hasieran oraindik desoreka industria astunen eta produkzio-ondasunen alde zegoen.

Horietako bat energia lehengaiena zen, petrolio eta gas erreserba handiak baitzituen Sobietar Batasunak. Sektore hori izan zen garrantzitsuena kanpo ekonomian. Horri dagokionez, bi eremu desberdintzen ziren: bata, estatu sozialistekin burutzen zuena, *Comecon*en antolatua zegoena, eta bestea gainerako herrialde kapitalistekiko merkatu eremua. Desberdintasuna, *Comecon*eko herrialdeei laguntza eta kreditu xamurrak emateaz gain, prezio bikoizpenean zegoen. SESBeko petrolio prezio baxuagoan saltzen zen *Comecon* eremuan<sup>5</sup>, hortik kanpo, mundu mailako prezioak izanik erreferentzia (Lavigne 1989: 88-89). Mendebaldeko herrialdeei gehienbat petrolio eta gasa esportatzen zitzaizkien, lortutako irabaziekin kontsumo-ondasunak (zerealak barne) inportatuz.

Nekazaritza zen sobietar ekonomiaren beste sektore garrantzitsua. Halere, kontutan izan behar da bere lurraldearen zati handiena ez dela egokia zereal landareentzako, eta klimaren gogortasunak ere esparru oso zabaletan aukera urriak eskaintzen dituela. Antolaketari zegokionez, kooperatiba handietan (*kolkhoz* izenekoak) eta estatu enpresetan (*sovkhos* izenekoak) banatzen zen produkzioa. *Kolkhoz*ak estatutik zuzenean antolatzen ez ziren kooperatibak ziren, formalki, baina estatu aparatuek agintzen zuen bere gainetik alderdi askotan. Eremu pribatu txiki bat ere bazegoen, *kolkhoz*etako zein estatu enpresetako (edozein sektorekoak) familiei eskaintzen zitzaizkiena. Bakoitzak lursail txiki bat eskuratzen zuen bere beharretarako (hektarea

---

<sup>5</sup> Halere *Comecon* eremua ez zen inoiz merkatu bateratu bat izatera iritsi, Europako Elkarre Ekonomikoarekin alderatzen badugu, adibidez. Aldebiko hitzarmenen bidez funtzionatzen zuen, merkatu txikia eta atomizatua izan baitzen *Comecon* bere historian zehar (Lavigne 1989: 90-95).

laurden bat inguru), baratza produktiboenak bertan ezarriz (esne eta haragi produkzioa barne), eta familiako betebeharrak ase ondoren, soberakinak merkatu kolkhoztarretan saltzen ziren. Merkatu libre batean oinarritzen ziren bakarrak ziren horiek, normalean prezio altuagoetan salduz<sup>6</sup>.

Sobietar ekonomiaren berezitasun nabarmenetakoa, ekonomia kapitalistekin alderatuz, langabezia ezarena zen. Sobietar Batasunean ia ez zegoen langabeziarik, ekonomia hazkunde estentsiboaren ondorioetako bat lan-eskuaren etengabeko beharra baitzen. Horrek abantaila ematen zion enpleguari, enpresek, langile beharrean, etengabe lan eskaintzak egiten baitzituzten, eta beraz oso ohikoa zen lanpostu mugikortasuna<sup>7</sup>. Enpresak langile berriak erakartzeko lehian ibiltzen ziren, soldata zein bestelako zerbitzu (etxebizitza, adibidez) hobeak eskainiz (Chavance 1987: 13-15).

Eskasia hori ez zen lan-esku beharrera mugatzen. Sobietar ekonomiaren egituraketa zela eta, *eskasiaren orekan* (Chavance 1987:124) egotea zen egiturazko egoera, planifikazioak oinarritzko beharrak asetzera begira egiten baitziren, eta behar horiek handitzen zihoazen neurrian eskaerak eskaintza gainditzen zuen, gehienetan. Gainera, planifikazioen akatsen ondorioz hainbat produktu gehiegizko ere ekoizten ziren, edo erabilgaitzak zirenak, eskaintza orekatua egitea zailduz horrela. Pixkanaka ugaritzen ari baziren ere, kontsumo-ondasunak ziren eskasia ekonomia horren adierazpide bat 1980ko hamarkada hasieran, mendebalde kapitalistan kontsumo-gizartea (ahal zutenentzat, noski) eratzen ari zen garai berdinean, bidenabar.

## **2- Krisian zegoen Sobietar Batasuneko ekonomia 1980ko hamarkada hasieran?**

Hona hemen tesi nagusia: II. Mundu Gerra amaitu eta gero hazkunde handia izan zuen Sobietar Batasuneko ekonomiak 1960ko hamarkada erdira arte. Hortik aurrera, hazkunde estentsiboaren mugak hastean, hazkundera moteltzen joan zen, 1980ko hamarkadan geldialdi egoerara iritsiz. Egiturazko arazoa zuen ekonomiak, eta krisialdi

---


<sup>6</sup> Sakontzeko ikus Nove 1987: 130-138; Palazuelos 1990: 107-123; Chavance 1987: 81-91.

<sup>7</sup> Batez beste 3,3 urteko egonaldia egiten zuen langile batek enpresa baten, eta espezialitate berdinean 3,2 urte. Gazteak ziren enpleguz aldatzen ibiltzen zirenetatik gehienak, bi heren inguru (Chavance 1987: 14-15).

sakonean murgilduta zegoen. Aldaketa sakonak egitea ezinbestekoa zen gainbehera ekidingo bazen<sup>8</sup>.

Ikertzaile guztiek ez dute bat egiten ordea tesi horrekin, gutxiengoa izan arren. Horien artean aurkitzen da Serguei Kara-Murza historialaria, ekonomia krisian egon zela ukatzen baitu (1994: 77-119). Tesi horren arabera, hazkundera motelagoa zen 1970 eta 1985 urte bitartean, baina ekonomiak hazten jarraitzen zuen. Eta gainera, motelago haztea ez zen egoera larri baten adierazle, are gehiago kontutan hartuz mendebaldeko ekonomiak ere urte horietan berdintsu hazten ari zirela. Gainbeheraren arrazoiak beste batzuk izan ziren Kara-Murzaren ustez. Ikus ditzagun Sobietar ekonomiaren datu esanguratsuenak.

Estatistikak aztertzean, interesgarria da ikustea ikertzaile guztiek datu berdintsuak erabiltzen dituztela beren lanetan, irakurketa desberdinak egiten badituzte ere. Gehien erabiltzen duten datua produktu sozial gordinaren hazkunderaren bilakaera da (ikus 1 irudia).



*Iturria:* Palazuelos 1990: 32, estatistika sobietarrean oinarritua.

Datu estatistiko ofizialak kontuz aztertu beharrekoak dira, puztuta egon baitaitezke. Beste kalkulu mota batzuk hazkunderaren jaitsiera nabarmenagoa zela adierazten dute. Maddisonek hazkundera 1950-73 epealdian urteko %5,0 eta 1973-89koan urteko %2,1 kalkulatu du (1992: 43-44). Nikolai Shmelev eta Vladimir Popov ekonomialariek berriz 1960ko hamarkadarako urteko %4a adierazten dute, 1970ko


<sup>8</sup> Tesi honekin bat egiten dute sobietar ekonomia aztertu duten gehienek, hala nola, Rojo 1991: 42; Chavance 1987: 134; Palazuelos 1990: 31; edo Castells 1992: 34.



hamarkadaren lehen erdirako urteko %3,2 eta bigarrenerako berriz %1, eta 1980ko hamarkada hasieran ia zerora jaitsiz (Rojo 1991: 38). Ikusten denez hazkundera estuagoa da kalkulu horietan, baina guztietan tendentzia bera ikus daiteke; Perestroika aldiaren hasieran oraindik hazkundera positiboa zen, baina jaisteko joera nabariarekin, geldialdi egoerara gerturatu. Gainera, 1982 arte petrolioaren mundu mailako prezioak altuak ziren, eta esportaziora bideratzen zenez, horrek hazkunderari eusten lagundu zion.

Kara-Murzak erakusten duen beste indizea inbertsioei buruzkoa da. Horren arabera, 1980tik 1985ra %1,2 hazi zen inbertsiora bideratutako aurrekontua, mendebaldeko herrialdeen antzeko hazkundera zena (Kara-Murza 1994: 83). Inork ez du zalantzan jartzen inbertsiora gero eta aurrekontu handiagoa bideratzen zenik, baina bai ordea esfortzu horren eraginkortasuna. Kapital finkoen ondarea (produktzioarako makineria) gero eta zaharkituagoa zegoen, ekipamendu industrialen batez besteko bizitza 1970ean 8,27 urtetatik 1985ean 9,91 urtetara igaroz (Palazuelos 1990: 248). Horrek esan nahi zuen produktibitate berdina lortzeko gero eta gastu handiagoak egin beharrean aurkitzen zirela. Esfortzu horien ondorioetako bat zen osasungintzara edo hezkuntzara bideratzen zen aurrekontuaren ehunekoa jaistea.

Errealitate horrek ez zuen bat egiten 1960ko hamarkada hasieran Khrustxovek adierazitakoarekin, non ekonomikoki urte gutxitan mendebalde kapitalista harrapatu, eta are gaindituko zutela iragarri baitzuen, sobietar asko mendebaldeko bizimoduari begira jartzera bultzatuz horrela. Lehen Mundu kapitalistarekin kontsumismoan lehiatu nahi izan zuen Sobietar Batasunak (de Sebastian 1992: 205), haien kontsumo patrioiak imitatzeraz joz. 1980 hasieran argi zegoen hori ez zela inola ere gertatu, eta horrek frustrazio handia sortu zuen bertako jende askorengan. Desberdintasun horren adierazpide argia da biztanleko errentak 1980ko hamarkadan mendebaldearekiko zeukan diferentzia (ikus 2 irudia). Errusiako Errepublikaren kasuan, 1980ko hamarkadan zehar oraindik igoera sumatu daiteke, baina ia begetatiboa da. Lehen Mundu kapitalista ekonomikoki harrapatzeko helburua urruti geratzeaz gain, diferentzia hori berriro handitzen ari zela ere ikusten da, sobietarren kalterako.




*Iturria:* Novokmet; Piketty; Zucman 2017: eranskineko 1a irudia.

Kontutan hartu beharrekoa, halere: biztanleko batez bestekoak ez du adierazten barruko desberdintasuna, hau da, zenbateraino zegoen errenta proportzionalki banatua. Horretarako beste adierazle batzuk egokiagoak dira, Gini koefizientea esaterako. Perestroika garaia hasterakoan, 1985. urtean, Errusiako Errepublikak 0,26ko Gini koefizientea zuen (Novokmet; Piketty; Zucman 2017: 10c irudia). Mundu mailako indize baxuenetakoa zuten Sobietar Batasuneko errepublikek, eta horrek esan nahi du, Europa mendebaldean eta Sobietar Batasunean diru-sarrera gutxien zutenen arteko aldea batez bestekoan ikus daitekeena baino txikiagoa zela (2. Irudia). Horrekin lotuta legoke honako beste datu hau: 1987an %2a bakarrik zegoela pobrezian (Maddison 2002: 157). Bestetik, elikadura datuei dagokionez, 1980an sobietarren eta estatubatuarren artean antzeko emaitzak ateratzen ziren, esneki, arrain edo barazkien kontsumoetan (Karamurza 1994: 86; eta Palazuelos 1990: 259). Pobrezia edo oinarrizko gabezia egoeran zegoen jende kopurua oso txikia zen, baina orokortasunari begiratu gero, mendebaldearekiko aldea handia zen errenta eta kontsumo-ahalmenean.

Ekonomiaren hazkundera moteltzeko arrazoietan, hazkunde estentsiboarekin jarraitzeko gero eta zailtasun handiagoak aipatu dira atal honen hasieran. Aurrerago sakonduko da zailtasun horien inguruan, baina beste bidea, hazkunde intentsiboa garatzea zatekeen, mendebaldean gertatzen ari zen bezala. Sobietar ekonomiaren arazo nagusienetako bat ordea (nagusiena ez esatearren), produktibitate ahalmenari lotuta

zegoen. Produktibitateak (pertsona orduko) hazten jarraitzen zuen, 1950-1973 aldian %3,6 urteko, eta 1973-1986 aldian %1,2a (Maddison 1992: 121). Halere, mendebaldeko herrialdeekin alderatuz, horiekiko arrakalak handia izaten jarraitzen zuela begi-bistakoa da (ikus 3. irudia).



*Iturria: Maddison 1992: 122*

ELGAko (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea) herrialdeak alde murriztuz joan ziren Estatu Batuekiko (produktibitate altueneko herrialdea garai horretan), Sobietar Batasunak, ordea, 1973tik aurrera ezin izan zuen diferentzia hori murriztu. Baina okerrena ez zen hori. Izan ere, pertsona bakoitzak orduko zuen produktibitate mailari erreparatu zaio, baina produktibitate ahalmen osoaren datuak begiratzuz gero, honako hazkundera izan zuen Sobietar Batasunak: 1960-1970ean %1,5 urteko, 1970-1975ean %0 urteko, 1975-1980an %-0,4 urteko, eta 1980-1985ean %-0,5 (Perez Alcala 1998: 414) Azken hamar urteetan hazkunde negatiboa izan zuen beraz, eta horren arrazoia kapital finkoaren produktibitatearen gainbehera zegoen, aurretiaz aipatu bezala, makineria ondarea gero eta zaharkituagoak ekonomiaren produktibitate ahalmena jaisten zuelako, konponketa gastuak igotzearekin batera.

Laburbilduz, 1980ko hamarkada hasieran bilakaera ezkorra, dezelerazio eta geldialdi prozesua deitua izan dena, ukazina zen. Sobietar ekonomia krisi sakon baten sartua zegoenik erantzutea erlatiboagoa da, edo krisiaren pertzepzioa nolakoa zen hango

gizartean. Sobietar Batasuna egiturazko krisi ekonomikoan zegoela diotenen artean, honako aipamenak aurkitzen baitira: “Krisia *intelligentsia*-k hautematen zuen, baina kalean ez zen krisiaren zantzurik, trantsizio politikoa hastean. Planifikazio zentralak bere bidea egina zuen, eta, modu traketsean bazen ere, biztanleen bizi maila igo zuen. Erosle ilarak zituzten bai, baina bizilekua, elikadura, hezkuntza, bermatu zituen” (Mas-Colell 1991: 104).

### **3- Lehen aurrekariak. Brezhnev aldiaren amaiera eta Andropoven saiakerak**

“Itun Brezhneviarra” aipatu da lehen atalean, behe-mailakoenen soldatak handitu eta goi-mailakoei izozteari erreferentzia eginez. Brezhnev garaia (1964-1982) ondorio gehiago ere utzi zituen, pisu handikoak izan zirenak ondorengo garaian. Brezhnev aldiaren gobernantza eredia ulertzeko, ezin da ahaztu Stalinen garaian zaildutako agintari belaunaldi batek osatzen zuela buruzagitza. Garai oso gogorak biziturikoak ziren horiek, eta tentsio eta gorabehera handiak sufritu ondorenean, egonkortasuna eta lasaitasuna desira zuten (Poch-de-Feliu 2003: 8-9).

Horrek *nomenklatura* ondo zaintzea eskatzen zuen, Khrustxovek berau erreformatzeko saiakeretan aparatuan sortutako asaldurak gogoan, sektore ekonomikoetan ere nahasmenduak sortu baitziren orduan (Taibo 1989: 84). Abentura erreformatzaile horietan sartu baino nahiago izan zuten egitura ekonomikoarekin boterea konpartitzea (gainera, Stalinen garaiko errepresio eredia ere deseginda zegoen), oreka eta egonkortasuna bilatuz horrela. Horrek jarrera kontserbadorea indartu zuen, eremu guztietan. Baina beste ondorio batzuk ere utzi zituen: batetik, ekonomia planak diseinatzerakoan enpresek beren ahalmen errealek ezkututzen zituzten, euren ahalmenen azpitik plana betetzera mugatuz. Eta bestetik, planak betetzerako orduan, gero eta ohikoagoa izan zen “bide informalak” erabiltzea, hornikuntzak lortzeko sare ez-ofizialak sortuz (Castells 1992: 21).

Bide informalaren garapenak ezkutuko ekonomia indartsu bat sortu zuen, ordura arte ezagutu gabekoa, merkatu paraleloak indartzu<sup>9</sup>. Eta horien garapenarekin sare

---

<sup>9</sup> Proto-enpresaritzaz bezala izendatu daitekeen fenomeno berria zabaldu zen, ekonomia pribatuan mugitzen zirenak (gure kasurako merkatu beltza), nomenklaturako kideek baino diru gehiago irabazten zuten. Denbora igaro ahala funtzionario batzuen eta proto-enpresarioen artean negozio ekonomikoak ugaritu ziren (Poch-de-Feliu, 2003: 15-16).

mafiosoak eratu ziren, handizkako merkataritzaren kontrola lortuz hainbat eremutan, produktuen banaketa (eskasian zirenak) bide informaletatik bideratuz (Palazuelos 1990: 30). Bertrand Chavancek “merkatu grisa” deitzen dion horri (enpresen arteko trukeak, planifikazio sistemaren kalkulu okerrak zuzentzeko), “merkatu beltza” ere gehitu zitzaion, “mafia sobietar” gisara ere izendatu izan dena (Castells 1992: 36-37). Castellsen iritziz, Brezhnev aldian hasi zen mafia sare hori eratzen, eta gobernu arduradun batzuek, ez ikusiarena eginez, eta are parte hartuz, indartu zuten.

Brezhnev aldian zenbait aldaketa ere egin ziren, ekonomia hobetzeari begira. Garai horretakoa da *schekino* sistema, non produktiboak ez ziren langileen kaleratzeak onartzen ziren, geratzen ziren langileak, produktibitatea igoz gero, sarituz (Taibo 1989: 85). Hori bai, erresistentzia handiak topatu zituzten horrelako neurriak hartzerakoan, langabezia egoeren eta tentsio sozialen beldur baitziren. Hala eta guztiz ere, garai horretan bizi-mailaren igoera eta kontsumoaren hazkundea<sup>10</sup> gertatu ziren, eta mendebalde kapitalistan sendoago izan bazen ere, indibidualismoaren garapena ere aldi horretan hasi zen nabarmentzen sobietar gizartean (Poch-de-Feliu 2003: 14).

Bilakaera soziala ez zen mugatu horretara, ordea. Brezhnev aldiaren amaierako urteetan apatia giroa hedatuz joan zen, 1960ko hamarkadako bizi-mailaren hobekuntza handiaren amets hura desagertzen zihoalako, eta harrotasun nazionala ere urtzen ari zen pixkanaka. Egoera ezkor horretan, egonkortasuna mantendu asmoz, lan-baldintzak malgutu eta leuntzeko erabakia hartu zen, frustrazio haren kontra-partida gisara (Palazuelos 1990: 28-29). Langileria moldatu egin zen egoera horretara, baina denborarekin absentismo laborala eta alkoholismoa hedatu ziren. Eta baita moralaren usteltzea ere, tranpa eta iruzurra normalizatuz ekonomian merkatu beltzaren bitartez.

Brezhnev hiltzean, aldaketen beharra barneratua zegoen buruzagitzako sektore batzuetan. Andropoven aukeraketarekin, erreforma saiakerei bidea ireki zitzaien. Andropovek, gainera, beste fronte bat irekia zeukan, ekonomikoki zulo handi bat ekarri ziona Sobietar Batasunari: Afganistango gerra. 1979ko abendutik sobietar armada gerran ari zen Afganistanen, eta hildako soldaduez gain, gastu ekonomiko handiak ere bideratu behar izan zituzten. Zulo ekonomiko horrek sobietar ekonomia larriagotu egin zuen (Miranda 2010: 168).

---

<sup>10</sup> 1975 eta 1985 urte bitartean kontsumo pribatua % 1,5 hasi zen (Perez Alcalá, 1998: 413).

Irekiera politikorik ez zuen planteatu Andropovek. Estatu aparatuaeren goitik beherako agintaritzaz ez zen zalantzan jarri, baina ekonomiaren erreformei ekin zitzaion. Helburua, gero eta intentsiboagoa izango zen ekonomia eredu batera igarotzea zen. Batetik, teknologia garapena (prezio altuagoak ezarriz kalitate handiagoko produktuentzat), kontratu ekonomikoak zuzenago betetzea (administrazio eta merkataritza sarea hobetuz), eta baliabideen esleipen deszentralizatuagoa bultzatu zen (Taibo 1989: 87). Bestetik, ustelkeriaren aurkako neurriak hartu ziren, merkatu beltzaren eragina murriztu asmoz, eta Brezhnev aldiari zabaldutako lan absentismoaren<sup>11</sup> eta alkoholismoaren aurkako borroka ere bideratu zen. Andropoventzat, izan ere, krisia soziala zen ekonomikoa baino (Palazuelos 1990: 33).

Andropovek ez zuen denborarik izan erreformak egokiro burutzeko, buruzagitzara iritsi eta 15 hilabetetara hil baitzen. Andropov hiltzean, Txernenkok ordezkatu zuen, Brezhneven ildo kontserbadorekoa zena, eta martxan jarritako hainbat erreforma moteldu zituen. Halaber, 1980ko hamarkada hasieran okertzen joan zen beste arazo bat: *Comecon* eremuko herrialdeek gero eta arazo ekonomiko larriagoak zituzten, zorpetze handitan sartzeraz behartuz, eta Sobietar Batasunari gero eta kostu handiagoa zekarkion herrialde horiei laguntza ekonomikoa ematea (Berzosa; Bustelo; de la Iglesia 2001: 303).

Txernenkoren agintaldia ere laburra izan zen, urtebete baino zertxobait gehiagora hil baitzen. 1985eko hasieran nomenklaturako sektore kontserbadorea ahulduta zegoen, arazo ekonomikoak ez ezik, arma lasterketan ere atzerapena erakusten ari zelako Estatu Batuekiko lehian. Ondorioz, kontsentsu zabal bat egon zen buruzagitza organoetan erreformei bidea ireki behar zitzaiela onartzerakoan (Fontana 2013: 662). Lan horretarako, belaunaldi gazteago bati eman zitzaion lekukoa, erreformak egitearen beharra barneratuago zeukanari, hain zuzen.

#### **4- 1985. Gorbatxov, autokritika, alarma gorriak. *Uskorenje* estrategia**

Andropov (hil aurretik bere izendapena eskatuz) eta Gromyko buruzagi historikoez babestu zuten Gorbatxoven hautaketa idazkari nagusi bezala. Beharrezkotzat ziren erreformak bideratzeko pertsona egokitzat zuten, lidergo eta

---

<sup>11</sup> Lan diziplinaren gogortzearen aldarrikapenak arrakasta izan zuen sobietar gizartean, neurri horiekiko babesa zabala izanik (Poch-de-Feliu, 2003: 27).

dinamismo berria emango ziona burutu nahi ziren hobekuntza ekonomikoei (Poch-de-Feliu 2003: 43-44). 1985eko martxoan hartu zuen kargua Gorbatxovek, eta apirilera alderdi komunistaren komite zentralean ekonomia erreformei eman nahi zitzaizkion jarraibideak onartu ziren, ondoren XXVII. Batzar Nagusian sakondu zirenak, eta “Garapen ekonomiko eta sozialerako oinarritzko orientabideak, 1986-1990 eta 2000. urtera arte” bezala definitu zirenak.

Lehenik eta behin, autokritika zorrotza egiten zen Brezhnev aldiaren ekonomiak izan zuen dinamikari buruz. Urte horietan mendebalde kapitalistarekiko atzerapen ekonomikoan sakondu zela onartzen zen, konformismoari, jarrera kontserbadoreei eta gehiegizko burokrazia zentralari egotziz horien jatorria. Finean, ekonomiak fase berri batera igaro behar zuela aldarrikatzen zen, eta horretarako “erreforma erradikalak” burutu behar ziren. Erreformatik egin ezean, sobietar proiektuaren galbidea aurreikusten zen, dilema horri larritasun zantzu nabaria emanez.

Arazoaren muina ekonomia estentsiboak erakutsi zituen mugetan oinarritzen zen. Ekonomia ezin zen gehiago hazi bide estentsiboaren bidez, eta beraz, intentsibora pasatzea beharrezkoa zen. Andropoven erreforma saiakerak ere norabide horietan eman ziren, eta beraz, Gorbatxoven lehen urteetan bide horri heldu zitzaion berriro ere. Aurrekoarekiko desberdintasuna, erreformatze prozesuari eman zitzaion planteamenduaren bateratasuna izan zen (Aganbegyan 1986: 9), *uskorenje* (azelerazio errusieraz) estrategia bezala definitua izan zena.

Estrategia horiekin, eraginkortasuna, kalitatea eta produktibitatea hobetu nahi ziren (Abalkin 1986: 6-7). Hori guztia sobietar ekonomiaren oinarriak zalantzan jarri gabe egin nahi zen, eta beraz sistema ekonomikoan hautematen ziren hutsegiteak konpontzera bideratu ziren esfortzuak. Errendimenduak hobetzeko, produkzioan erabiltzen ziren lehengaien kontsumoa gutxitu, enpresa barruko antolaketari autonomia gehiago eman, eta planifikazio egituren deszentralizazioa proposatu ziren. Helburu anbiziotsuak ezarri ziren, gainera: 2000. urterako errenta nazionala bikoiztea eta produktibitatea % 150ean haztea nahi zen.

Helburu horiek lortu ahal izateko, honako eskema hau egin zen: lehenik makineria mekanikoen fabrikazioa ugaritu beharra zegoen, aurrerapen tekniko-zientifikoan<sup>12</sup> oinarrituta egongo zena. Ahalmen hori adar militarreko jakintza eremuan zegoen, eta beharrezkoa zen gastu militarra gutxitzea, helburu berri horretara zuzenduz

---

<sup>12</sup> Zientzia sektorean egin nahi zen inbertsioa errenta nazionala hazten zena baino 1,5 areagotzea onartu zen 1986-1990 epealdirako (Aganbegyan 1986: 6).

sobietar industria aurreratuarenaren parte bat (Palazuelos 1990: 36). Horrela, makineria mekanikoaren produkziara bideratzen zen inbertsioa handitu zen, enpresek makineria berri horrekin produktibitatea azkartuko baitzuten, eta ondorioz, sobietarrek eskatzen zituzten kontsumorako produktu eskaintza ere hobetuko zen, bizi-maila igoz.

Horrekin batera, berritasun handiena izango zenari atea ireki zitzaion. Mekanismo ekonomikoaren birmoldaketa zabaltzen hastea onartu zen (Abalkin 1987: 137-138), enpresen autonomia eta deszentralizazioari aukerak eskainiz, eta merkatuaren arau ekonomikoek eskaintzen duten informazioa ere erabiliz.. Autogestio finantzarioa bultzatu zen, orobat, enpresen irabazien parte handiago bat bertatik kudeatzeko aukera eskainiz, eta kolektibo laboralen legea onartu zen, lantegietako erabakietan langileen parte-hartzea errazteko, sindikatu eta gizarte eragileei enpresetako zuzendaritzetan lekua eskainiz (Rizhkov 1986: 44).

Azkenik, aipatzekoak dira ere lan diziplina hobetzera begira alkoholismoaren aurka hartu ziren neurriak. Edari alkoholunen prezioak igo ziren, eta horiekiko irisgarritasuna zaildu zen, enpresetatik urrun ezarri denda, beste neurri batzuen artean (Taibo 1989: 108). Hasieran, neurriok emaitza onak eman zituzten, baina, segituan, destilazio bide informalak ugartu ziren.

Orientabide horietan zerbait azpimarratzen bazen, ordea, giza-faktorea zen. Neurri horiek ez zuten emaitza onik izango sobietar gizartearen ez bazen urrats horietarako prestatu eta eraldatzen<sup>13</sup>. Mentalitate moderno baten beharra aipatzen zen (Abalkin 1986: 239-240), eta perestroikaren zailtasunik handiena hamarkadetan zehar sobietar gizartearen garatutako pentsatzeko era aldatzea izango zela aitortzen zen (Gorbatxov 1987: 60).

## **5- Perestroika ekonomikoaren bultzatzaileen helburuak**

Ekonomiaren egoera zailak aldaketak egiteko premia areagotu zuen. Perestroikaren aldekoen lehen hausnarketa honakoa zen: lehengo ereduarekin ezin zutela jarraitu, gizartearen aldatu zela, eta ekonomia ere behar berrietara egokitzea hil ala bizikoa zela, sobietar sistema mantendu nahi bazen (Gorbatxov 1993: 174-175).

1987an “itxaropenen iraultza” bezala definitu zuten perestroika saiakera. Iraultza hitza erabiltzen zen. Ordura arte ezagututako sistema irauli egin nahi zutela ulertzen

---

<sup>13</sup> “Giza-faktoreak guztia determinatzen du” (Abalkin 1987: 210) edo “Giza-faktorea gakoa da” (Aganbegyan 1986: 32).



bada, zertan zetzan iraultza hark? Erantzuteko galdera zaila da, batik bat bere atal ekonomikoari dagokionean, laburbildu daitekeen definizio zehatzik ez zuelako, eta gainera, denboran zehar zirkunstantzien arabera politikak moldatuz joan zirelako.

Perestroika ekonomikoarekin egin nahi zena ezaugarritzeko, Leninen eredura bueltatzea zela aldarrikatzen zuten<sup>14</sup>, hasieran behintzat. Perestroika, “sozialismo gehiago” aldarriarekin lotzen zen (Maidanik 1989: 12), ekonomia sozialista ireki, eraginkor eta lehiakorrari bidea zabaldu asmoz (Shmeliiov 1989: 98). Halere, sobietar ekonomiaren atzerapenaren ondorioz sortzen ari zen desoreka militarra (Estatu Batuekiko) zen aldaketa beharrezkoaren iturburuetakoa bat (Maidanik 1989: 16), eta neurri handi baten, aldaketetara ireki baziren (zenbait sektore behintzat), beste irtenbiderik aurkitzen ez zutelako zen.

Mekanismo ekonomiko berriak jabetza ereduak birmoldatu nahi zituen, 2000 urterako errenta nazionalaren %30a kooperatiba eta familiarterako negozioetara igaroz, beste %70a estatu-enpresetan mantenduz, baina betiere autogestio finantzarioan oinarrituak (ordura arte estatua egiten zen funts-horniduren kargu). Enpresa mistoak ere bultzatuko ziren, kanpoko enpresa eta kapitalak bertako enpresekin fusionatzeko aukera emanez. Planifikazioa zentrala eta bertikala izan beharrez, planifikazio zuzentzailea (gehienez ere errenta nazionalaren %15a), planifikazio indikatiboa (enpresa eta sektoreei orientabideak bakarrik emango zizkiona), eta merkatu librekoa konbinatu nahi ziren (Shmeliiov 1989: 97).

Prezioak ezartzeko modua ere aldatu nahi zen. Plangintzaren beharrez arabera kalkulatuak ziren ordura arte, askotan inflazioa sortuz, benetako gastuak ez baitziren kontutan hartzen batzuetan, emaitza defizitarioak estatuak hartuz beregain. Lau-bost urtetan handizkako salerostea merkatuaren arabera garatu nahi zen, handizkako prezioen erreforma erradikala burutuz (Maidanik 1989: 32). Beste aldaketa bat errubloaren bihurtasuna lortzea zen, kanpo merkataritza erraztu eta indartzeko. Mundu ekonomiara irekiera handiagoa proposatzen zen.

Perestroika ekonomikoa aurreko erreformatik (Khrustxov, Kosigin, Andropov) bereizten zuena ere finkatzen zen. Alde batetik, erreforma modu orokor eta bateratuan planteatzen zen (aurrekoak partzialak zirenean). Bestetik, agindu bidezko plangintza

---

<sup>14</sup> Rizkhov 1986: 25; Abalkin 1987: 19; Aganbegyan 1989: 172; Gorbaxov 1987: 22-24.

zentrala osorik ordezkatu nahi zen (aurrekoak erreforma mugatuak ziren). Eta azkenik, gizartearen demokratizazioa funtsezkoa zen, ekonomia berregituratzeko motorra izango baitzen: giza-faktorea berriro aipagai (Aganbegyan 1989: 225). Mekanismo ekonomikoaren aldaketa burutzeko goitik beherako agindu eredu baztertzeko zen. Presio bidez jokatu beharrean, enpresei autonomia ematea proposatu zen, produktibitatearen hobekuntza lortzeko modurik eraginkorrena izango zelakoan. Eta soldatak ere produktibitatearekin lotu nahi ziren (Maidanik 1989: 24). Izan ere, 1985ean lehen urratsak ematen hasi zirenean “galga mekanismoa” jarri zen agerian, erresistentzia eta inertzia jarrerek osatzen zutena, bai burokraziaren barnean (botere esparruak galtzeko beldurra), bai gizartearen zati esanguratsuetan ere bazeudenak. Galga hori gainditzeko modua demokratizazioa zen, estatuko zein enpresetako aginte eremuetan egin beharrekoa.

Arazo nagusia jarrera pasiboan zeudenak aktibatzea izango zen. Horien aktibazioa lortzeko, ongizatearen hobekuntza hauteman behar zuten horiek aurretik, baina kontrara, nola lortu hobekuntza pasiboak aktibatu baino lehen? (Maidanik 1989: 67). Gurpil zoro batean sartzeko arriskua nabaria zen.

Orain arte aipatutako helburuek “sozialismo gehiago” baino merkatu libreria hurbiltzearekin zerikusi gehiago dutela iduri dezakete. Perestroikaren bultzatzaileek “merkatu sozialista” eraikitzeaz hitz egiten zuten. Baina, ba al zen ezberdintasunik merkatu horren eta mendebalde kapitalistarenaren artean? Ezin utzizko printzipioak hauek ziren: lurra eta baliabide naturalak ez ziren salgai jarriko (estatu-jabetza mantenduz, alokatze sistema bakarrik ezarriz), soldatapekorik ere ez zen izango (kooperatibak eta negozio familiarak bakarrik baimenduz, lan-indarra kontratatzeke debekuekin), eta produktu garrantzitsuenen prezioak estatuak ezarriko zituen (Aganbegyan 1989: 92-93). Azkenik, merkatu sozialistan langabeturik ez zela onartuko aldarrikatzen zen, baina hori bermatzeko zehaztasunik egin gabe. Proposatzen zena honakoa zen: enpresa defizitarioak itxi egingo zirenez, horko langileak merkatu sozialistan ugarituko ziren zerbitzu enpresetan (hirugarren sektorean) txertatzea. Ekonomia postindustrial batera (zerbitzu sektorearen gero eta pisu handiagoarekin) igarotzeko aurreikuspena antzeman daiteke kalkulu horietan.

Dena den, aurretik aipatu bezala, perestroika ekonomikoaren inguruko politikak moldatuz eta aldatuz joan ziren, eta denbora gutxian hizkera erabat aldatuko zuten

zenbaitek<sup>15</sup>. Gorbatxov berak, 1987an ekonomia planifikatuaren (zuzentzaile eta indikatiboa izanik, hori bai) abantailez hitz egiten zuen bitartean (Gorbatxov 1987: 82), 1990ean merkatu librearen abantailak aipatzen zituen bakarrik (Gorbatxov 1993: 265-267). Kontuz irakurri beharrekoak dira, beraz, bultzatzaileek egin zituzten adierazpenak, unearen araberrako zirkunstantziak ere kontutan hartuz irakurketak egiterakoan.

## **6- *Uskorenietik* perestroikara. 1987-1989. Erreformen sakontzea, demokratizazioa eta merkatu sozialista**

Esan bezala, 1985an lehen erreformak martxan jarri eta bi urtera, erresistentzia eta inertziak aurkitu ondoren, irtenbidea erreformetan sakontzea izango zela ebatzi zuen Gorbatxoven taldeak. Erreforma bigunekin emaitzak urriak izaten ari ziren, eta galga-mekanismoaren langa gaintzeko zailtasunak etengabekoak ziren. 1987. urtea garrantzitsua izan zen perestroika ekonomikoarentzat (demokratizazio orokorrerako *glasnost*-gardentasun jarraibideak jarri ziren martxan), neurri eta lege berriak onartu zirelako. Bultzatzaileentzako, aurrerantz ala atzerantz egiteko ordua iritsia zen, eta beharrezkoa zen determinazioz urrats handiagoak ematea, aurrera egingo bazen.

1987ko ekainean, alderdi komunistaren komite zentralak jarraibide ekonomiko berriak onartu zituen. “Kudeaketa ekonomikoaren berregituraketa erradikalerako oinarritzko tesiak” izenburupean hainbat urrats planteatu ziren. Horien berritasuna, erreformen sakontasunean eta prezioen aldaketa handiagoetan zegoen (Perez Alcalá 1998: 417).

Neurriei dagokienez, enpresa lege berria izan zen garrantzitsuena. Neurriak anitzak ziren: estatuak enpresei egingo zizkieten eskariak %40ra jaistea aurreikusten zen (ordura arte %90ekoak ziren), zuzendarien hautaketa langileen esku uzten zen (alderdiaren kontrolpean zeuden bestelako eragile sozialek ere zeresana izango zuten hautaketan, halere), enpresen autogestioa ia erabatekoa izango zen, eta hainbat produkturen prezioak modu librean ezarri ahalko zituzten. Neurri horiek, aukera berriak irekitzeaz gain, ziurgabetasuna ere sortu zuten. Batetik, autofinantzatzearen beharrak arrisku handien aurrean jartzen zituen enpresak, horri buruz ez zutelako esperientziarik,

---

<sup>15</sup> Yakovlev politburoko kidea izandakoak bi urteren buruan sozialismoaren handitasunak aipatetik desbideratze hutsa izan zela esatera igaro zen (Poch-de-Feliu 2003:73).

eta bestetik, prezio egokiak ezartzeko oraindik ez zuten informazio sare egokirik (Taibo 1989: 92).

Beste lege garrantzitsu bat kooperatiben legea izan zen, 1988ko maiatzean indarrean jarri zena. Ordura arteko kolkhoz kooperatibez gain, manufaktura, kontsumo eta merkataritza sektoreetan ere ahalbidetu ziren. Kooperatiben irabazietan ez zen mugarik ezarri, prezioak partzialki liberalizatuz (Berzosa; Bustelo; de la Iglesia 2001: 318). Kolkhoz eta sovkhoei ere merkatu librean aritzeko ahalmena handiagotu zitzairen, 1987an beren produkzioaren %30a liberalizatuz (Chavance 1987: 137). Aurreko urteetan, gehienez, %10a saldu zezaketen modu horretan.

Deszentralizazio helburuak ere izan zuen bere emaitza praktikoa: *khozrastxot* legea martxan jarri zen, errepublikei kontabilitate ekonomikoaren eskumena transferituz, eta enpresa estatalen kudeaketa haien esku utziz. Halere, esan beharra dago erabakitze ahalmena alderdiko egituretan mantendu zela (errepublika mailakoetan), eta egitura horiek ez zuten hango enprekin harreman handirik, tentsio nazionalistak indartu ziren (Poch-de-Feliu 2003: 54).

Merkatu sozialista eraikitzea zen helburua, baina 1989an, oraindik handizkako merkataritzaren prezioen eta finantza sistemaren erreformak egikaritu gabe zeuden, merkatu berri hori sortzeko beharrezko urratsak zirenak (Palazuelos 1990: 39). Errubloaren bihurtasuna, berriz, barneko prezioen erreformaren ostean ezarri beharrekoa zen, tartean diruaren devaluatzea aurreikusiz (Taibo 1989: 106).

1989. urtean, aurrekontu defizita murrizteko (BPG-aren %11ra iritsi zen), Rizhkov gobernuaren egonkortasun plana onartu zen. Hainbat elementuk defizita igoarazi zuten, hala nola petrolioaren gero eta prezio baxuagoek, sarrera fiskalen jaitsierek (alkoholaren aurkako neurrien ondorioz gutxitutako salmentengatik), Txernobilgo zentral nuklearraren istripu larriak (kolpe psikologikoa egundokoa, bidenabar), Armeniako lurrikara suntsitzailearen gastu itzelek, eta kontsumo beharretarako inportazioen igoerek. Egonkortasun planak honako neurriak hartuko zituen defizita murrizteko: irabazirik ematen ez zuten enpresak itxi, defentsa gastuak murriztu, soldadak izoztu, edota oinarrizko produktuen prezioak igo ez zitezen ematen ziren diru-laguntzak murriztu (Berzosa; Bustelo; de la Iglesia 2001: 319). Esan beharrik ez dago neurriok ez zutela harrera abegikorrik izan gizarteko hainbat esparrutan.

Rizhkov gobernuko programaren beste atala oinarritzko zerbitzuen eskaintza hobetzeko neurriak izan ziren, etxebizitza, elikagai, eta orokorrean kontsumo ondasunen kopurua handitzeko bideak proposatuz. Batetik, armagintza sektorea horiek produzitzera bideratuko zen, eta bestetik, kontsumorako inportazioak ugarituko ziren. Egoera zail hori ikusita, 1990. urteari giro petralarekin ekingo ziotela begi-bistakoa zen.

## **7- Lehen bost urteen balorazioa. 1985-1990**

Gorbatxov gobernura iritsi eta bost urte igaro ondoren egoera honakoa zen: lehen urtean produkzioa pixka bat hobetu bazen ere (1986an), bilakaera gorabeheratsua izan zen, bulkaden arabera mugituz ekonomia, baina orokorrean 1980ko hamarkada hasieran baino hazkunde-tasa baxuagoak lortu ziren. Adierazle ofizialei so egiten badiegu, produktu sozial gordina 1976-1985 artean %3,7 hazi zen urtero, eta 1986-1989 artean berriz %2,8 (Palazuelos 1990: 49). Beste adierazle batzuek ikuspegi ezkorragoa erakusten dute. 1987an nekazaritza produkzioaren hazkundera %0,2koa izan zen bakarrik (Taibo 1989: 123). 1988rako berriz, zertxobait igo zen hazkunde orokorra, baina are azkarrago ari zen igotzen defizit publikoa: 1985ean 15.000 milioi errublokoa izatetik 1988an 90.000 milioikoa izatera igaro zen (Poch-de-Feliu 2003: 65). Merkatuak hartu behar zuen pisuari dagokionez, aurreikuspenak ez ziren bete: 1990erako estatuaren eskariak (enpresei) %40ra jaitsi behar bazuten ere, errealtatean estatuarenek guztiaren %90a izaten jarraitzen zuten.

Hasierako urteetan hazkundearen azelerazioari emandako lehentasunak ez zuen lagundu produktibitatea hobetzen. Hazkundera begira eginiko diru inbertsio handiek berrikuntzara bideratzea zailtzen zuten. “Kontua ez da bakarrik hazkunde erritmo altuak ez ditugula behar, inolako hazkunde erritmorik ez dugula behar baizik” (Shmeliiov 1989: 102). Produkzio bideen berregituraketa egingo bazen, lehentasun guztia horretan jarri behar zen, hasieran behintzat, “gehiago egitea” alboratuz. Teknologia altuko sektorean bakarrik behar zen hazkunde azkarra, berritze prozesuari lagundu ahal izateko.

Bestalde, jendearen aurrezkiek gora egiten zuten, paradoxikoki. Izan ere, estatuak dirua jaulkitzera jo zuen, eta soldatak ere igo egin ziren. Prezioak ez ordea, gobernuak horiek liberalizatzeko momentu egokirik ez baitzuen aurkitzen, baina jendeak eros zezakeenerako eskaintza nahikorik ez zegoenez, aurrezkiek gordailuetara

bideratzen zuten. 1987an, esaterako, %7a igo ziren gordailuetako aurrezkiak (Taibo 1989: 124).

Emaitza ekonomikoak ez ziren aurreko urteetakoak baino okerragoak izan, baina aurreikusi zituzten hobekuntzak ez ziren inolaz ere gertatu. Gizartean nora eza eta haserrea hedatzen zihoazen, eta gero eta jarrera erradikalagoak indartu ziren erreformak moteldu edo azkartu nahi zituztenen artean. Bitartean, pasiboek geldirik jarraitzen zuten, aipatutako gupil zoroak ezin hobeto funtzionatuz. Gainera, erreformen motorra izan behar zuen alderdi komunistaren barnean koadro iraultzaile on gutxi geratzen ziren, urteetako bazterketen eta esklerosi prozesuaren ondorioz (Maidanik 1989: 68).

Beste fenomeno bat ere indartu zen. Sektore pribatua garatzean (negozio familiar eta kooperatiben bidez), konturatu ziren merkatu beltzean salduz gero diru gehiago aterako zutela, eta hori egiteko joera hedatu zen. Gainera, ezkutuko ekonomian aritzen zirenak, kooperatiben bidez dirua zuzitzeko aukera aurkitu zuten, degradazio moralean beste pauso bat emanez (Mesa, 2010: 241-242). Funtzionamendu tranpati horrek egonezina sortu zuen gizartean, lehendik “igualitarismoaren” kultura barneratua zutenei are eta amorru handiagoa eraginez (kooperatibetako langileek besteek baino gehiago irabazten zuten), eta horrela, maila ekonomiko baxukoaren artean perestroikarekiko babesa ahuldu zen.

Gobernuaren kalterako, haserre guztien jomuga perestroika bera bihurtu zen, batzuentzat urrunegi joan zelako, eta besteentzat berriz aldaketarako irtenbidea izateari utzi ziolako. Perestroikak bultzatzen zuen sozialismoaren eta merkatuaren arteko konbinazioak gero eta lorrezinagoa zirudien.

## **8- 1990. Eztabaida biziak eta erreforma erradikalagoak. Abalkin Vs. Shatalin**

Hamarkada berriaren hasieran ekonomia are eta gehiago okertzearekin hasi zen. Ordurako, haserrea eta ezkortasuna zabalduak zeuden gizartean, eta gainera, tentsio hori eremu politikora igaro zen orobat. Tentsioak, demokratizazio eta irekiera prozesuarekin bilatzen ziren helburuak ez betetzeaz gain, egoera okertzen lagundu zuen. Ugariak ziren seinaleak. Armagintza sektorearen eta beste enpresen arteko elkarlana ez zen garatzen; enpresek burujabetza hartzean, aurreratuen zeudenek ez zituzten besteekin beren abantailak partekatu nahi. Greba eta lan gatazkak ugairitu ziren, aldarrikapen

politikoekin nahastuz gainera. Errekurtsoetan aberatsak ziren meategi zein petrolio ustiaketak langileek beren produktuen erabateko liberalizazioa eskatu zuten (ahal zuten bezain garestien saltzeko, nazioartera begira gehienbat). Errepubliketan ere berdina gertatzen ari zen, blokeo ekonomikoak ugarituz (errekurtsoak emateari uko eginez). Gainera, intentzio politiko argiarekin: Batasunaren erorialdia ahalbidetzea, errepublika bakoitzak (pobreenek kenduta) arrakastaren gakoa merkatu propioa sortzean ezarriz (Poch-de-Feliu 2003: 131).

Egiturezko arazoiek ere eragina zuten, jakina. Iraultza teknologikoak estatu eta enpresa produktibo erraldoien sistema gainditu zuen, eta sobietarrek zailtasun handiagoak izan zituzten egoera berrira moldatzeko (Milanovic 2000: 181-184). Planifikazio ereduak eragile ekonomikoak aktibatzeke arazoizko mekanismorik sortzea ez zuen lortu, oinarrian, ekonomia mota horrek ez ziolako jendeari aukeratzen uzten (Cotarelo 1989: 168). Indibidualismoaren garapena ere aipatzen du Cotarelok, horrek ere krisiaren sakontzean eragina izan zuelakoan (1989: 196). 1970tik aurrera mendebaldean hedatu eta ekialdera ere iritsi zen “indibidualismoaren errotze mugagabeak” (Badiou; Gauchet 2016: 139) kalte egin zion merkatu sozialista bat eratzerako nahiari.

Horrez gain, nibelazio sozialistak, *uravnilovka* izenekoak (soldaten arteko desberdintasun txikia), garapen teknologikoari ez zion mesederik egin (Milanovic 2000: 123). Hainbatek, beraz, ereduari bertan ikusten zuen arazoa, politika boluntaristek muga bat zutela adieraziz.

Dena den, 1990ean, aurreko ereduak nola eta zenbat aldatu bihurtu zen eztabaidagai nagusia Sobietar Batasunean. Egoera nahiko kaotikoa zen, planik gabe zein merkaturik gabe aurkitzeko zorian baitzeuden (Rojo 1990:46). Gorbaxov, erreforma erradikalagoen alde jarri zen, eta Jeltsinek Errusiako Errepublikako hauteskundeetan lortutako babes ikusgarriak ere lagundu zion, erreforma erradikalen aldekoa baitzen Jeltsin (Martin de la Guardia 1999: 13). Rizkhov Gobernuak Abalkin ekonomialariari agindu zion programa berri bat egiteko, eta Jeltsinek berriz Shatalini. Shatalinena erradikalagoa zen (merkatu askerako trantsizioa egitearen esanahian), eta gainera, bere

proposamenak egutegi baten arabera mugatu zituen: 500 egunetan burutu behar zen merkatu librerako trantsizioa<sup>16</sup>.

Shatalin eta Abalkinen programen ezberdintasuna laburbildu daiteke bi gako nagusitan: sakontasunaren tamainan, batetik, eta epeen arteko desberdintasunean, bestetik. Abalkinek bost urte proposatzen zituen aldaketak burutzeko, eta merkatu ekonomia arautua proposatzen zuen (Palazuelos 1990: 44). Bestalde, Abalkinek enpresen desestatalizazioaz hitz egiten zuen, Shatalinek erabateko pribatizazioa nahi zuen bitartean (Bastida 1991: 151). Abalkinek, prezioen igoera mugatuagoa proposatu zuen, horrek herritar txiroenen artean sortuko zuen eros ahalmenaren galera %70ean konpentsatuz estatuko diru-laguntzen bidez.

Shatalinen programa Jeltsinen gobernuak aurkeztu bazuen, Abalkinena erreformisten eta sektore kontserbadoreen arteko adostasunetik eratorri zen (Palazuelos, 1990: 44-46). Gorbaxovek, Aganbegyan-i enkargatu zion bi programen uztarketa bat egin zezan (Bastida, 1991: 134-135), eta bere posizioa indartzeko, Jeltsinekin akordioa egin zuen. Proposamen berriak bi urteko epea ezartzen zuen trantsiziorako, eta beraz, Shatalinek egindakotik gertuago zegoen.

Gorbaxovek eta Jeltsinek adostutako programak ez zuen ibilbiderik izan, ordea. Erreformak abiatu aurretik, Jeltsinek alderdia utzi eta Gorbaxoven aurkako oposizio gogorraren buru izatera pasa zen (arrazoia ez zen izan bakarrik ikuspegi ekonomikoarena, halere), eta 1990eko udazkenean Jeltsinekin lerrokatu ziren Gorbaxovek perestroikaren hasieran bidelagun izan zituen *intelligentsia* munduko erreformistak ere, hasierako urteetan defendatzen zuten merkatu sozialista baztertuz orain, eta perestroika eta komunismoa ezkon ezinak zirela defendatzera igaroz (Castells 1992: 85-86). Gorbaxov, ondorioz, babesik gabe geratu zen, eta 1990eko udazkenean alderdi komunistako sektore kontserbadorearen babesa bilatu behar izan zuen (Martin de la Guardia 1999: 15). Azkenean, gobernu berri bat osatu zuen horiekin, egonkortasuna lortu nahian.

---

<sup>16</sup> Lehen 100 egunetan estatu jabetzak saldu, hurrengo 150 egunetan industria pribatizatu, eta azken 250 egunetan prezioak liberalizatu eta pribatizazioekin bukatu, industriaren %70a eta merkataritza sektorearen %90a (Castells 1992: 56).



## 9- 1991ko estatu kolpea eta erorialdia

1991. urtea are okerragoa izan zen, hala ekonomikoki nola politikoki. Produkzioa %15 jaitsi zen (Berzosa; Bustelo; de la Iglesia 2001: 321), eta hornidura falta gero eta larriagoa bihurtu zen. Politikoki ere aldaketen azelerazioa ikusgarria zen: uztailaren 25ean alderdi komunistako komite zentralak “sozialismo demokratikoa” onartu zuen, 74 urtez doktrina ofizial izandako marxismo-leninismoa alboratuz.

1991ko udaberrian Gorbatxovek berriro ere erreforma erradikalen aldeko jarrera hartu zuen<sup>17</sup>, Jeltsinen aldekoek indar handiagoa eskuratu baitzuten 1991ko hauteskundeetan, eta, beraz, Gorbatxovek beste saiakera bat egin nahi izan zuen norabide horretan. Gainera, mendebalde kapitalistako herrialdeekin kredituak negoziatzen zebilen Gorbatxov, ekonomiaren atzerakada hartan kontsumo beharrak asetzeko beharrezkoa zena (Poch-de-Feliu 2003: 106-107). Kredituen truke, mendebaldeko herrialdeek erreforma sakonagoak egitea eskatzen zioten. Halere, Gorbatxovek Shatalinen proposamenaren aldeko jarrera plazaratu bazuen ere, kredituak ez ziren iritsi.

Egoera horretan antolatu zen bide hori geldiarazi nahi zutenen estatu kolpea. Arrazoiak askotarikoak ziren, eta ekonomiari zegokionean ezin esan daiteke perestroika aurreko egoerara bueltatu nahi zenik. Pavlovek gidatzen zuen gobernuak (kolpea eman zuen berberak) aldaketa ekonomikoak motelago eman zitezen nahi zuen. Pavloven aholkulari izan zen Orlov ekonomialariak 500 astetako (ia 10 urte) trantsizioa proposatu zuen, 500 egunetan izan beharrean (Castells 1992: 57-58). Bestalde, errepublikan eta gobernu zentralaren artean sortu zen blokeo ekonomikoa askatu nahi zuten. Metodoa mahaian zartako bat jotzea izan zen, estatu kolpearen bidez egoera bideratu nahian. Beranduegi zen ordea, alderdian eta armadan ez baitzuten babes nahikorik izan, eta egun gutxitan ezerezean geratu zen saiakera hori.

Estatu kolpeak dena bizkortu zuen, baita arlo ekonomikoan ere. Gorbatxovek dimisioa aurkeztu zuen, perestroikaren saiakerari amaiera emanaz. Atzera bueltatzea zein erreformaren bidea ezabaturik, mendebalde kapitalista puruaren aldeko bidea erabat garbitu zitzaien, eta 1991ko abenduan Sobietar Batasunak bere existentziari amaiera eman zion, Estatu Burujabeen Erkidegoa sortuz, errepublika bakoitzak estatu propioa eratzearekin bat.

---

<sup>17</sup> Carlos Taibok Gorbatxoven bi aurpegiak seinalatzen ditu, bata “neoburokratikoa” eta bestea “kriptokapitalista”, urte horietan izan zuen jarrera aldakorra definitzeko (2000: 102-103).

Ez dago jakiterik zer gertatuko zatekeen erreforma saiakera lehenago egin izan balitz, edo beste modu batera. Ikertzaile batzuen ustez, 1983an Andropovek bere bidea egiteko aukera izan balu arrakastarako aukera gehiago izango zukeen, sobietar gizarteak autoritate handiz “goitik” zuzendutako aldaketak errazago onartuko zituzkeelako (Poch-de-Feliu 2003: 48). Txinako kasuan Deng Xiaopingek zuzendu zuen goitikako erreforma gradualagoaren antzeko erreforma bat bideragarriagoa izango zen, beraz<sup>18</sup>. Mark Harrison ikertzaileak, bere aldetik, Andropov gehiago bizi izan balitz sobietar ekonomiak gehiago irauteko aukera izango zukeela dio (Fontana 2012: 676). Astrid S. Tuminez ikertzailearen ustez ere, Sobietar Batasunak bazituen hamarkada gehiagotan ere irauteko baldintza ekonomikoak, “goitik beherako” agintaritza mantenduko zuen lidergo eredu bat jorratu izan balu (Fontana 2012: 699). Hipotesiak hipotesi, 1991ko azken egunotan kontu jakin bakarra zen sozialismoa (sobietar erara) eta merkatu librea konbinatzeko saiakera hark porrot egin zuela.

#### **10- Jeltsin eta Gaidar. “Xok terapia” erorialdiaren epilogo moduan**

1991ko irailetik aurrera, Sobietar Batasuneko errepublikek eskumen guztiak eskuratuak zituzten. Errusian, Jeltsinek bere erreformak egin ahal izateko bidea libre zuen. Ekonomia ministrotzat Yegor Gaidar aukeratu zuen, “xok terapiaren” defendatzailea zena. “Terapia” horrek Nazioarteko Diru Funtsaren eta mendebaldeko zenbait aholkulariren oniritzia zuen, Jeffrey Sachs buru zutela (de Sebastian 1992: 208).

Gaidarrek, perestroika garaian, merkatu sozialistarako urrats zuhurrak ematea aholkatzen zuen. Beste kontu bat da urrats zuhurrak ematearekin zer esan nahi zuen. Dena dela, Jeltsinen bidetik ekonomiaren ardura hartu zuenean honakoa zen bere errezeta: “besterik gabe, begiak indarrez itxi eta ezezaguna zaigun amildegira salto egin behar dugu” (Medvedev 2004: 24). Urtebeteko epean, une gogorrek pasa eta gero, ekonomia egonkortu eta egoera bideratzea lortuko zela uste zuen (Medvedev 2004: 28).

1992ko urtarrilean prezio gehienak liberalizatu ziren. Austeritate politika aplikatu zen, eta defizita %3,2ra jaitsi zen. Errubloaren bihurtasuna burutu zen, izugarritzko devaluazioa jasan ondoren. Enpresen pribatizazio masiboa burutu zen,

---

<sup>18</sup> “Askatasunaren prezio bitxia” deitzen dio Poch-de-Feliuk perestroika prozesua gizartearen esku uzteak izan zuen emaitzari, erreformaren aurkako elementu garrantzitsuena bihurtu baitzen haren ustez irekiera demokratikoa bera (2003: 49).

estatu bonuak banatuz jendartean (Berzosa; Bustelo; de la Iglesia 2003: 323). Merkatu askerako benetako urratsa emana zegoen, Shatalinen programa defendatzen zuten hainbat adituren<sup>19</sup> eskariak erantzuna aurkitu zuen, eta ez 500 egunetan, baizik eta kolpez.

Emaitza ezin txarragoa izan zen. 1992an inflazioa %1200 igo zen, produkzioa eta produktibitatea %20 eta %24 jaitsi ziren, hurrenez hurren, eta soldata errealak berriz %40 (Berzosa; Bustelo; de la Iglesia 2001: 324), baina urtebeteko zorigaitza izan beharrean, hurrengo urteetan ere joera berdintsuak jarraitu zuen: 1998an Errusiako BPGa 1990ean baino %42 baxuagoa izan zen, eta pobrezia kopurua berriz, 1993-1995 urteen artean %50etik gorakoa (Maddison 2002: 158). Enpresek zergak ez ordaintzeko ihesbide errazak aurkitzen zituzten (Sobietar Batasuna desegitean merkatu beltza are gehiago ugaritu zen), eta ondorioz, estatuaren diru-sarrerak asko jaitsi ziren. Enpresa estatalek eroslerik ez zuten aurkitzen, eta, gainera, Nazioarteko Diru Funtsak ez zuen krediturik aurreratzen (De Sebastian 1992: 209). Jendeak eskuratu zituen bonuak akzio bihurtu ziren, eta aberasten hasia zen oligarkia berriak erosi zizkien ia hutsaren truke. Oligarkia horrek mozkin onak ematen zituzten enpresak bakarrik erosi zituen (baliabide naturalen ustiapenekoak, gehienbat), eta, ondorioz, beste asko itxi beharrean aurkitu ziren, langabezia zabalduz. Sobietar Batasuneko errepublika ohien produkzioa ikaragarri jaitsi bazen ere, denbora berdinean, oligarkia berri horrek egundoko dirutzak egin zituen. Errenta nazionala jaitsi bakarrik ez, askoz ere okerrago banatua zegoen orain: Gini koefizientea 0,5ekoa izan zen 1997an (Maddison 2002: 159).

Bilakaera hori ikusita, ez da arraroa pentsatzea Txinaren antzera trantsizio gradualagoa egitea hobe izango zela, merkatura igarotzeko, eredu zaharra eta berria konbinatuz pixkanakako aldaketa eginez (Stiglitz 2002: 229-230).

Stiglitz ustez, merkatuak lagundu dezake berrikuntzan, baina ez du berau bermatzen. Estatuaren papera garrantzitsua litzateke, merkatuarekin batera konbinatzean (2010: 487). Gainera, zenbait esperientziak erakusten dute enpresa estatalak pribatuak baino eraginkorragoak izan daitezkeela, Taiwan edo Hego Korean gertatu bezala (Stiglitz 2011: 344). Bistan denez, Errusian ez zen horrelako norabiderik hartu, eta xok terapiak emaitza onik ez zuenean izan aurreko garaietako nostalgia indartu zen sektore txirotuenetan. Xok-aren urte berean, 1992an, egindako inkesta batek adierazten zuen gizartearen laurdena baino gehiagok askoz ere nahiago zuela Brezhneven garaiko

---

<sup>19</sup> Rojo 1991: 59 eta 70; Palazuelos 1990: 195; Castells 1992: 55.

bizimodua (Gorbatxov 1993: 309). Izan ere, bizi-kalitate hobea bietako zeinek eskaintzen duen aukeratzekoan, zer da garrantzitsuago, nola egin konparaketa kapitalismoaren kontsumo askatasunaren eta sozialismoaren jaiotzetik hil arterainoko segurtasunaren artean? (Frieden 2007: 565).

Bukatzeko, azken datu bat: Errusiak 2002tik aurrera 1990eko biztanleko BPGa gainditu eta hobetu duen arren, 2015ean, oraindik, gizartearen %50 txiroenak perestroika garaian zuen errenta maila baino %15 baxuagoa izaten jarraitzen du (Novokmet; Piketty; Zucman 2017: F1a eta F8c grafikoetatik kalkulatu).

## **11- Ondorioak**

Aurten 30 urte bete dira Tiananmengo plazan irekiera demokratikoa eskatzen zutenen aurka tankeekin sartu eta protesta bortizki desegin zutenetik. Txinako buruzagitzak, Sobietar Batasunean ez bezala, erreforma ekonomikoen prozesua kontrolpean egin ahal izan zuen. Gaur egun, arrakastatsutzat hartzen da Txinaren bilakaera ekonomikoa. Arrakastaren arrazioen artean, Txinako alderdi komunistaren agintaritzak kateak autoritate handiz funtzionatu izana aipatzen da. Hori bai, balorazioa egiterakoan nekez gogoratzen den inor Tiananmengo gertakariekin.

Perestroikak, aldiz, porrot egin zuen. Erreforma prozesuak irekierarekin bat planteatu ziren, eta are gehiago, herritarren borondatezko inplikazioa prozesuaren arrakastaren gakotzat hartu nahi izan zen. Sobietar ekonomiak zituen egiturazko arazoak, enpresei eta langileei euren kabuz antolatzeko askatasun gehiago emanaz zuzendu nahi izan ziren, plangintza zentralaren erdua pixkanaka alboratuz, eta burokrazia enpresen autogestioarekin ordezkatzuz.

Horrek, hasieran ilusioa sortu zuen gizartean. Jomuga altuak planteatu ziren, eta epe motzean egitekoak. Arazoak azkar hasi ziren, ordea. Produktibitatea igotzeko eginiko inbertsioek ez zuten nahi zen emaitza bete, eta egoera hobetzen ez zenez, jendearen inplikazioa lortzea gero eta zailagoa bilakatu zen. Eragin ahalmena galtzen ikusi zuten erdi eta behe mailako burokrazia aparatuek, gero eta erresistentzia handiagoak erakutsi zituzten, eta okerragoa zena, prozesuaren motorra izan behar zuen lidergo berriaren kopuru handi batek bizkarra eman zion merkatu sozialista eraikitzeko saiakerari, mendebalde kapitalistako ereduaren alde eginez. Babesik gabe geratu zen perestroika proiektua. Egoera hartan, gero eta garrantzitsuagoak izan ziren eskumenen

deszentralizazioek (errepublika zein enpresa mailakoek) ere anabasa handitzen lagundu zuten.

Ekonomia emaitzak okertzean, egoera politikoa ere tenkatu zen, eta trantsizioa astiroago egin nahi zutenen eta merkatu librerara salto egitea defendatzen zutenen arteko adostasuna ezinezkoa bilakatu zen. Jeltsinen alderditik alde egiteko erabakiak zein 1991ko estatu kolpearen saiakerak amaiera azkartu egin zuten.

Poch-de-Feliuren arabera, bigarren mailako ekonomia bat izatea onartu eta helburu xumeagoak barneratuz erreformak burutzea izan zitekeen Sobietar Batasuna bizirik mantentzeko aukera bakarra, horrela behintzat sobietarrek aurretiaz eskuratutako buru-askitasuna mantentzea lortuz. Azkenean, kapitalismora kolpera pasatzea erabaki zen, eta Roy Medvedevек dioen bezala, “sobietar gizartea, eskuak lotuta zituela iraganarazi zuten merkatu askera”. Emaitza ezaguna da.

## **12-Bibliografía:**

- Abalkin, Leonid (1987): *URSS, estrategia del desarrollo económico*. Mosku, Progreso.
- Aganbegyan, Abel (1986): *Una economía sensible a la renovación*. Mosku, Nóvosti-ko prentsa agentzia.
- Aganbegyan, Abel (1989): *La perestroika económica. Una revolución en marcha*. Bartzelona, Grijalbo.
- Badiou, Alain ; eta Gauchet, Marcel (2016): *¿Qué hacer ? El capitalismo, el comunismo y el futuro de la democracia*. Bartzelona, Edhasa.
- Bastida, Benjamín (1991): *La revolución del Este: análisis de un fracaso*. Bartzelona, Cristianisme y Justicia
- Berzosa, Carlos; Bustelo, Pablo; de la Iglesia, Jesús (2001): *Estructura económica mundial*. Madril, Síntesis.
- Castells, Manuel (1992): *La nueva revolución rusa*. Madril, Sistema.
- Chavance, Bernard (1987): *El sistema económico soviético*. Madril, Revolución.
- Cotarelo, Ramón (1989): *La izquierda: desengaño, resignación y utopía*. Bartzelona, Ediciones del Drac.
- De Sebastián, Luis (1992): *Mundo rico, mundo pobre. Pobreza y solidaridad en el mundo de hoy*. Maliaño, Sal Terrae..
- Fontana, Josep (2013): *Por el bien del imperio. Una historia del mundo desde 1945*. Bartzelona, Pasado & Presente.
- Frieden, Jeffrey A. (2007): *Capitalismo global. El trasfondo económico de la historia del siglo XX*. Bartzelona, Critica.
- Gorbachov, Mikhail (1987): *Perestroika. Mi mensaje a Rusia y al mundo entero*. Bartzelona, Ediciones B.
- Gorbachov, Mikhail (1993): *Memoria de los años decisivos (1985-1992)*. Madril, Acento.

- Lavigne, Marie (1989): "Economía soviética y economía mundial" in *La perestroika: ¿A dónde va la Unión Soviética?* Koord. Fernando Claudín. Madril, Editorial Pablo Iglesias. 79-96.
- Maidanik, Kiva (1990): *Perestroika. La revolución de las esperanzas*. Tafalla, Txalaparta.
- Maddison, Angus (1992): *La economía mundial en el siglo XX. Rendimiento y política en Asia, América Latina, la URSS y los países de la OCDE*. Mexiko hiria, Fondo de Cultura Económica.
- Maddison, Angus (2002): *La economía mundial. Una perspectiva milenaria*. Madril, Ediciones Mundi-Prensa.
- Martín de la Guardia, Ricardo M. (1999): *Crisis y desintegración: el final de la Unión Soviética*. Bartzelona, Ariel.
- Mas-Colell, Andreu (1991): "El retorno del viaje" in *Reforma económica y crisis en la URSS*. Koord. Luis Angel Rojo. Madril, Espasa Calpe. 99-119.
- Mesa, Dario (2010): *La revolución científico-técnica y el colapso del socialismo real*. Medellin, La Carreta.
- Medvedev ,Roy (2004): *La Rusia Post-Soviética*. Bartzelona, Paidós Ibérica.
- Milanovic, Branko (2017): *Desigualdad mundial: un nuevo enfoque para la era de la globalización*. Mexiko Hiria, Fondo de Cultura Económica.
- Miranda, Alicia (2010): *La caída brutal*. San José, Montemira.
- Nove, Alec (1965): *La economía soviética*. Madril, Gredos.
- Nove, Alec (1987): *La economía del socialismo factible*. Madril, Siglo XXI de España.
- Novokmet, Filip; Piketty, Thomas ; Zucman, Gabriel (2017): *From Soviets to Oligarchs: Inequality and Property in Russia, 1905-2016*. Cambridge, NBER working paper series.
- Palazuelos, Enrique (1990): *La economía soviética más allá de la perestroika*. Madril, Ediciones de las Ciencias Sociales.

- Pérez Alcala, Gabriel (1998): "La transformación del Este: las economías en transición" in *Economía mundial. Tránsito hacia el nuevo milenio*. Koord. Manuel A. de Paz Báñez. Madril, Ediciones Pirámides. 397-424.
- Poch-de-Feliu, Rafael (2003): *La gran transición. Rusia 1985-2002*. Bartzelona, Crítica.
- Rizhkov, Nikolái (1986): *Sobre las orientaciones fundamentales del desarrollo económico y social de la URSS en 1986-1990 y hasta el año 2000*. Mosku, Nóvosti-ko prentsa agentzia.
- Rojo, Luis Angel (1991): "La URSS, sin plan y sin mercado" in *Reforma económica y crisis en la URSS*. Koord. Luis Angel Rojo. Madril, Espasa Calpe. 35-73
- Shmeliiov, Nikolai (1989): "La perestroika de la economía en la URSS" in *La perestroika: ¿A dónde va la Unión Soviética?*. Koord. Fernando Claudín. Madril, Editorial Pablo Iglesias. 97-109.
- Stiglitz, Joseph E. (2002): *El malestar en la globalización*. Madril, Santillana.
- Stiglitz, Joseph E. (2011): *Caída libre. El libre mercado y el hundimiento de la economía mundial*. Madril, Santillana.
- Taibo, Carlos (1989): *La Unión Soviética de Gorbachov*. Madril, Fundamentos.
- Taibo, Carlos (2000): *La explosión soviética*. Madril, Espasa Calpe.